



Gorka ETXEBARRIA DUEÑAS
Historialaria

Arreta bila

Gogoan duzue nazio foralarena? Ba horixe, aireak eramana, beste hainbat proposamen bide-
raezin bezala. 1978ko Konstituzioaren markoa erabat bidegabea dela urte luzez salatu dutenei aurpegiratu izan zaie: utopikoak, irrazionalak, iraganean iltzatuak... Egia esan, denboraren po-
derioz, irrazionala zena Gernikako (barkatu, Moncloako) Es-
tatutua beteko zela uste izatea zen, edo Nafarroarako espai-
niar Konstituzioak aurreikusten zuen xedapena martxan jar
zitekeela pentsatzea. Edo gartsuki Puerto Rico forala propo-
satu zutenean bezala, gero ikurrinaren koloreekin aterkien
kontzentrazioa egiten bukatzeko...

Independentzia aldarrikatzea ez da separatismoa eta baz-
terketa. Monzonek esaten zuen bezala, separatistak, izateko-
tan besteak dira, euskaldunak banatu nahi gaituztelako. In-
dependentzia aldarrikatzeak esan nahi du presente
edukitzea Pirinioen bi aldeetan bizi garela euskal herritarrak
eta benetako gure herentzia historikoa horixe dela, euskal-
dunak izateak ematen digun senidetasuna, jatorriak jatorri
eta testuinguru politikoa dena delakoa izanik. Ez XIX. men-
deko legeria batera begiratu beharra. Jakin behar baitugu bai
XIX. mendearen erdialdea bai Kontzertu Ekonomikoen
lehen garaia burgesiaren eta oligarkiaren urrezko aroa izan
zirela. Foruek ez zituzten langileak babestu; abera-
tsen errentak eta aberasta-
suna zaindu zituzten eta,
are gehiago, Pariseko Ko-
munaren garaian euskaldu-
nak Aita Santuaren aldeko
gurutzadara bidali zituzten.
Galdetzen didatenean kar-
listaldien garaian zein auke-
ra egingo nukeen, zer pen-
tsatua ematen dit 1871n
Donostian argitaratzen zen
aldizkari internazionalista
ere bazegoela jakiteak (*El Li-
bre Vasco-Navarro*).

**Digresio historikoak alde
batera utzita, berriro jarri
dute mahai gainean foruen
asuntoa, lehendakariaren
konbentzio konstituzionala
delakoarekin.** Legea aldatu
gabe legea aldatzeko propo-
samena, markoa zabaldu
gabe marko zabalagoa egite

koa. Harrituta nauka hitz askorekin ezer ez esateko Urkullu-
ren erraztasunak. Baita une honetan Euskal Herriko gizartea
ulertzeko bere zailtasunak ere. Norbaiti gaizki jokatzen ari
denean arreta ematen diozunean bezala gertatzen da: per-
tsona horrek, bere buruari begiratu beharrean, okurritzen
zaion edozein gauzarekin erantzuten dizu.

Jeltzaleen aurreikuspen elektoralak uste baino eskasa-
goak direla? Ba, konspirazio bat dago. Jendea konturatu dela
kudeaketa ona diru publikoarekin txiringitoak sortzean oi-
narritzen zela? Errua langileena eta sindikatuena da. EH Bil-
du gero eta sektore zabalagoentzat erakargarria dela? Ba,
Eitb Jaurlearitzaren kontra dago. Nafarroan aldaketaren alde-
ko posizioak indartzen ari direla? Ba, Urkullu indartuko
duen konbentzio konstituzionala egin beharko da. Espai-
nian bipartidismoa zartatu zenean, jeltzaleen bozak puztu
ziren modu berean, espainiartasuna indartu denean lekuri-
gabe geratzen ari dira. Pintxoek eta argazki politen auton-
omia erkidegoak ez die soluziorik eskaintzen langile eta he-
rritarrei. Pote eta pote artean, laneko tarteetan edo fami-
lian, etengabe zer egin daitekeen, zein akats egin ditugun,
zein aukera ikusten ditugun... eztabaidatu eta eztabaidatu-
ko dugunok aurrera begira ari gara eta foru autonomiak
gainezka egin behar du jada. •



Ilustrazioa: JONBI EGURTZEGI